6829

AGINDUA, 2008ko urriaren 29koa, Kultura sailburuarena, 2008. urteko Euskadi Literatura saria -euskarazko itzulpen onenari dagokiona-, ebazten duena.

Kultura sailburuaren 2008ko maiatzaren 7ko Aginduaren bidez (2008ko maiatzaren 29ko EHAA, 101. zk.), Euskadi Literatura saria, euskarazko itzulpen onenari dagokiona, arautu eta horretarako deia egin zen.

2008ko maiatzaren 7ko Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta berariaz zeregin horretarako 2008ko ekainaren 24an emandako agindu bidez (2008ko uztailaren 24ko EHAA, 141. zk.) izendatutako epaimahaiak egindako proposamena ezagutu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2008ko Euskadi Literatura saria, itzulpen onenari dagokiona, Josu Zabaleta Kortaberria jaunari ematea, 2007an Alberdania eta Elkar argitaletxeek argitara emandako «Gaueko gezurrak» izeneko literatura-lanagatik.

2.– Sarituak, aipatutako 2008ko maiatzaren 7ko Aginduaren 2. artikuluaren arabera, 18.000 euro jasoko ditu.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Kultura sailburuari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, dagokion gelan, esandako egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 29a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

6829

ORDEN de 29 de octubre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se resuelve el premio literario «Euskadi» modalidad a la mejor traducción literaria al euskera, en su edición de 2008.

Mediante la Orden de 7 de mayo de 2008, de la Consejera de Cultura (BOPV n.º101, de 29 de mayo de 2008), se convoca y regula el premio literario Euskadi, modalidad a la mejor traducción literaria al euskera.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 de la Orden de 7 de mayo de 2008, y una vez conocida la propuesta hecha por el jurado nombrado al efecto mediante Orden de 24 de junio de 2008 (BOPV n.º 141, de 24 de julio de 2008)

RESUELVO:

Artículo único.– 1.– Vista la propuesta del jurado, conceder el premio literario Euskadi modalidad a la mejor traducción al euskera, en su edición de 2008, al Sr. Josu Zabaleta Kortaberria por la obra titulada «Gaueko gezurrak», editada en 2007 por las editoriales Alberdania y Elkar.

2.– El ganador percibirá, de acuerdo con lo establecido en el artículo 2 de la citada Orden de 7 de mayo de 2008, 18.000 euros.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de octubre de 2008.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.